

Nazioarteko Online Ikastaroa


**“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK.
Alternatibak, ikuspegi partekatuak eta
prozesu kolektiboak eraikitzen”**

2. edizioa

(2020-2021 Ikasturte akademikoa)

2021

Gida Didaktikoa – 1. Modulua



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Finantziatzaioa:



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA

AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO

Alfonso Dubois

Gernika Gogoratuz

08-02-2021



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatuak eta prozesu kolektiboak eraikitzen”
(2. edizioa)

1. Modulua: Alternatiba-proposamena gaitasunen ikuspegitik abiatuta: kontzeptuak eta analisi-markoa

2

Moduluaren helburuak

- 1.- Gaitasunen ikuspegiak proposamen alternatibo gisa duen oinarriak ezagutzea.
- 2.- Gaitasun kolektiboen kategoria eta lurraldeen azterketarako aplikazioa.
- 3.- Lurraldeko aldaketa-prozesuak aztertzeke esparru orokor bat edukitzea.

Moduluaren sintesia

Lehenengo modulu hau teorikoena da, eta arreta berezia eskatzen du. Bi zatitan banatzen da: a) Lehenak alternatibo lantzeko oinarrizko kontzeptuak aurkezten ditu; b) bigarrenak aldaketa-prozesuen dinamikak ulertzeko analisi esparru bat eskaintzen du.

Proposamen alternatibo baten aurrean gaudela esateak esan nahi du, batetik, horrek araudi-eduki bat duela; hau da, helburuak gizarte bidezkoago bat eraikitzen goazen heinean formulatzen dira. Bigarrenik, helburu hori aurrera eramateak esan nahi du aldaketa derrigorrezko baldintza dela. Eta, azkenik, proposamena operatiboa izan behar da, hau da, ideiak errealitate bihurtzeko gai izan behar du; helburua da intzidentzia eraginkorra lortzea, aldaketa-prozesuak sustatuz.

Proposamen alternatiboaren ezaugarriei dagokienez, modulu honek honakoak lortzeko tresna teorikoak eskaintzen ditu: i) ikuspegi alternatiboa formulatzea; ii) errealitate ikuspegi horren arabera aztertzea; eta, iii) errealitate horren aldaketan esku hartzea.

Dimentsio kolektiboaren garrantzia nabarmendu nahi da, izan ere, jokoan dagoena egitura aldaketa da: Alternatibaren abentura nagusia zera da: erakundeen, balioen, jarreraren aldaketa-prozesuak sustatzea. Gizartearen egitura sozial, politiko eta ekonomikoak funtsezko erreferentzia dira. Horietan aurkitzen dira haien arteko korrelazioa ezartzen duten



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatutak eta prozesu kolektiboak eraikitzen”
(2. edizioa)

1. Modulua: Alternatiba-proposamena gaitasunen ikuspegitik abiatuta: kontzeptuak eta analisi-markoa

3

loturak eta lan egiten duten indarrak, baina baita balio, jarrera eta sinesmenen ereduak ere.

Aldaketara eramaten duten dinamikak ulertu behar dira. Horrek esan nahi du erakunde formal zein informalen funtzionamendua ezagutu behar dela, eta horrek esan nahi du pertsona eta taldeen arteko harremanak aztertu behar direla, eta, orokorrean, komunitatean jarduten duten eragile guztien artekoak. Baina, horretaz gain, dena gertatzen den testuingurua izan behar dugu kontuan.

Horregatik, analisia lurralde edo espazio zehatzetan zentratzen da. Horietan, historia, kultura, geografia, baliabide, ezagutza eta erakundeen arteko konbinazio konplexu bat ematen da. Izan ere, tokiko eremuak proiektu bateratuak eraikitzeko espazio gisa proposatzean, ez gara proposamen isolatzaileez ari. Kontrara, horrek esan nahi du estatu edo eskualdeen barruan besteekiko harremanak goranzko moduan ulertu behar ditugula. Are gehiago, pentsa dezakegu globalizazio desberdin bat eraikitzeko modua izan daitekeela, parekide eta humanoagoa. Gainera, tokiko izaerak gure lurralde eta komunitatearekiko atxikimendua bideratzen ditu.

Azkenik, moduluaren ardatz nagusietako bat zera da: gaitasun indibidualak dimentsio kolektiboarekin lotzen ikastea, hau da, gizartearen gaitasun kolektiboekin. Bakoitzak bere aldetik funtzionatzen duten dimentsio bereizi gisa ikusteko joera dugu; batzuetan soilik elkar gurutzatzen diren dimentsioak. Kontrara, gizakiak harremanetan daude eta dira, eta ez dira mundura izaki independente, autonomo eta burujabe gisa sartzen, pentsamendu neoliberalak eta liberalismo tradizionalaren zati handi batek sinetsarazi nahi duen moduan. Feminismoak enfasia jarri du harremanen ikuspegi horrek duen garrantzian. Pertsonen arteko harremanei erreparatuta, deigarria da nola eragiten dituen faktore batzuek boterearen funtzionamenduan, zehazki, ahalduztze-maila murriztu edo eragozteko, hala nola arraza, generoa, desgaitasuna eta bestelakoak. Norbanakoaren ikuspegitik harremanen ikuspegira mugituta, teoria eta politikarako aukera berriak sortzen dira.



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatuak eta prozesu kolektiboak eraikitzen”
(2. edizioa)

1. Modulua: Alternatiba-proposamena gaitasunen ikuspegitik abiatuta: kontzeptuak eta analisi-markoa

4

Ikasleen egitekoak

- Testua arretaz irakurtzea eta interesgarrien aurkitzen diren aspektuei buruzko laburpen edo iruzkina egitea.
- Egiten diren galderei erantzutea.
- Eztabaida-foroan parte hartzea.

Kronograma orientatiboa

Moduluak zazpi eguneko iraupena dauka: **2021eko otsailaren 8tik 14ra**, sei orduko karga osoarekin. Denboraren antolaketa oso desberdina izango da pertsona bakoitzarentzat, baina esan dezakegu denboraren honako banaketa egin dela, egunean ordubete ematen dela kalkulatuta:

21/02/08 astelehena	21/02/09 asteartea	21/02/10 asteazkena	21/02/11 osteguna	21/02/12 ostirala	21/02/13 larunbata	21/02/14 igandea
- Gida didaktikoaren irakurketa - 1. moduluaren aurkezpen bideoak ikustea - Testuaren 1. Zatia irakurtzea (25-46 orrialdeak)	- Testuaren 2. Zatia irakurtzea (47-63 orrialdeak) - Foroaren 1. galdera:	- Testua berriz irakurtzea. Irakaslearekin zalantzak argitzea - Foroaren 1. Galderan parte hartzea	- Foroaren 1. Galderan parte hartzea - Testuaren eskema pertsonala egitea.	- Foroko bigarren galdera irekitzea: - Testari erantzutea	- Foroaren 2. Galderan parte hartzea - Testari erantzutea - Web baliabide eta beste laguntza material batzuk berrikustea	- Testari erantzutea - Modulua amaitzea



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatutako eta prozesu kolektiboak eraikitzen”
(2. edizioa)

1. Modulua: Alternatiba-proposamena gaitasunen ikuspegitik abiatuta: kontzeptuak eta analisi-markoa

5

Oinarrizko testua euskaraz

<https://territoriolab.org/wp-content/uploads/2019/12/Mod-1-EUS.pdf>

WEB baliabideak

Ikastaroak orain duen iraupenarekin, ezin da testua bestea dokumenturik landu, baina hurrengo kontsultetarako web baliabide batzuk gomendatzen ditugu, modulu honekin erlazionatuta baitaude.

1. ALBOAN: COMPARTE proiektua

COMPARETE proiektua sarean lan egin eta hausnartzeko eremua da. 2011tik dago martxan, alternatiba sozioekonomikoak eraikitze asmoz. Horretarako, kide diren erakundeek garatzen dituen prozesu ekonomiko eta produktiboen bidez ezagutza sortzen dute. Euskadin finkatutako gobernu kanpoko ALBOAN erakundeak eta Latinoamerikako hamabost gizarte erakundeak osatzen dute. Azken horiek landa-eremuetan produkzio eremuak garatzen dituzte, batez ere.

Blog bat eskaintzen du (<http://desarrollo-alternativo.org/>). Bertan, garapen-eredu nagusiaren ordeko ereduak eraikitzearen eta garapen inklusibo eta iraunkor baten alde egiten duten informazio, ezagutza eta esperientziak partekatzen dira.

Sareko jardueraren aspektu garrantzitsu bat da hausnarketa bateratuko prozesua izan da. Proiektu bakoitzaren esperientziak abiapuntu hartuta, erreferentzia-esparru bat eraiki dute, egungo garapenaren ordeko alternatiba izan behar dena aztertzeko. Argitalpenetan adierazten den moduan, aldaketaren inguruko kezkan oinarritzen duten beren pentsamendua, betiere, gaitasunen garapenaren arabera. Bi dokumentu aipatu behar dira bereziki:

El desarrollo de capacidades como estrategia de cambio. Una experiencia colectiva de búsqueda de alternativas. 2016



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatutako eta prozesu kolektiboak eraikitzen”
(2. edizioa)

1. Modulua: Alternatiba-proposamena gaitasunen ikuspegitik abiatuta: kontzeptuak eta analisi-markoa

<https://www.alboan.org/es/multimedia/publicaciones/investigaciones/el-desarrollo-de-capacidades-como-estrategia-de-cambio>

El desarrollo alternativo por el que trabajamos: aprendizajes desde la experiencia.

<https://www.alboan.org/es/multimedia/publicaciones/investigaciones/el-desarrollo-alternativo-por-el-que-trabajamos>

Enfocando la participación desde lo local.

<https://www.alboan.org/es/multimedia/publicaciones/investigaciones/enfocando-la-participacion-desde-lo-local>

2. Ikerketa eta Garapenari buruzko Institutua (NITLAPAN)

www.nitlapan.org.ni

Managuako Universidad Centroamericana zentroan lan egiten duen institutua da. Aukera gutxien dituzten herritarrentzat aritzen dira. Horretarako, ezagutzak sortzen dituzten, belaunaldi aldaketan arteko prestakuntza ematen dute, gaitasunak sendotzen saiatzen dira, finantza-zerbitzuak eta zerbitzu ez finantzarioak sustatzen dituzte, eta aldaketa sozioekonomiko, politiko eta kulturalen kudeaketa burutzen dute, presentzia handiena duten lurraldeetan. Bere ikuspegia honela definitzen du: landa-eremuko komunitate eta komunitate indigena babesgabeenak emakume, gizon eta gazteen gaitasun kolektibo eta indibidualen garapenerako berrikuntzan eta ezagutzaren sorkuntzan lider izatea, beren bizitzetan eta lurralde osoan aldaketak eragiteko, genero berdintasuna, kultura aniztasuna eta ingurumen-iraunkortasuna kontuan hartuz.

Lanketa teorikoan egindako ahalegina nabarmendu behar da. Honako argitalpenetan dago jasota:



TERRITORIOS EN CONFLICTO
GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK
TERRITÓRIOS EM CONFLITO



Nazioarteko Online Ikastaroa
“GATAZKA EGOERAN DAUDEN LURRALDEAK. Alternatibak, ikuspegi partekatutak eta prozesu kolektiboak eraikitzen”
(2. edizioa)

1. Modulua: Alternatiba-proposamena gaitasunen ikuspegitik abiatuta: kontzeptuak eta analisi-markoa

7

Miguel Alemán, Johan Bastiaensen, Selmira Flores, Griet Steel, Carlos Sosa eta Silvia Martínez; *Territorio, actores y estrategias de desarrollo*. Managua: Nitlapan-UCA, 2011 46 p.: il. (Cuaderno de Investigación No. 40)

Johan Bastiaensen, Pierre Merlet, Marc Craps, Tom De Herdt, Selmira Flores, Frédéric Huybrechts, René Mendoza Vidaurre, Griet Steel, Gert Van Hecken (2015); *Agencia en territorios humanos rurales: una perspectiva socio-constructivista* En: Johan Bastiaensen, Pierre Merlet, Selmira Flores (Eds.); ***Rutas de desarrollo en territorios humanos: las dinámicas de la vía láctea en Nicaragua*** 1a ed. Managua UCA Publicaciones, 2015 Cap. 1.1 pp.21-64.

En: <https://drive.google.com/file/d/1zDN3hRmP9FX9Qwi8gDNcVo82TC8cjkHf/view>

3. Tokiko Giza Garapen Iraunkorraren baliabideak

<http://www.dhl.hegoa.ehu.es/>

Euskal Herriko Unibertsitateko Hegoa Institutuaren ekimena da. Tokiko Giza Garapenerako Atariak ildo horretako eduki teoriko eta praktikoak jaso nahi ditu. Honakoak eskaintzen dira: Dokumentuak (artikuluak, liburuak eta txostenak); prestakuntza baliabideak; eta ikus-entzunezko materiala. Eskuragarri dagoen elementu bakoitzak edukiak adierazteko fitxa bat darama erlazionatuta. Era berean, elementu bakoitza hitz gako batzuen arabera ezarri da, beraz, eskatzaile bakoitzaren interesen arabera bilatu ahal izango da.

Bereziki, giza garapenaren eta gaitasunen ikuspegian sakondu nahi dutenentzat (<http://www.dhl.hegoa.ehu.es/categorias/93>).